

# BITARTEKARITZA, FAMILIARI GATAZKAK ADISKIDETASUNEZ KONPONTZEN LAGUNTZEKO (DIBORTZIOA, ZAINZA...)

Garrantzitsua

**Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.**

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

**Arriskuan dauden adingabeak dituzten familiak > Krisi edo zaurgarritasun egoeran dauden familiei laguntzea**

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

## Zertan datza zerbitzu hau?

Familia Bitartekaritzako Zerbitzua zerbitzu publikoa, borondatezkoa eta doakoa da ([2.7.3.3 fitxa](#)). Hirugarren pertsona inpartzialek eta adituek ingurune neutral batean esku hartzen dute, eta familia- edo bikote- testuinguruan garatzen da. Bitartekari profesionalak ez du bere kabuz erabakirik hartzen. Aitzitik, aldeek erabakitzen dute zer gatazka duten, eta haiek adosten dituzte (edo ez) dagozkien akordioak. Hau da, familia-bitartekaria lanbide-figura espezializatu, inpartzial eta independentea da, eta familia-gatazken egoeretarako konponbide gogobetegarriak eta adiskidetsuak lortzea ahalbidetzen duten komunikazio-bideak irekitzea ahalbidetzen du modu extrajudizialean. Familia-bitartekaritzako zerbitzu integreletik artatutako gatazkak honako hauek izan daitezke:

- **Bikotea hausteak eragindako gatazkak**, honako hauekin zerikusia dutenak: seme-alaben zaintza eta jagoletza esleitzea; zaintza partekatuaren esparruan adostu beharreko alderdiak zehaztea; zaintza ez duen gurasoaren edo beste senitarteko batzuen bizikidetza-denborak; elikadura-pentsioak; etxebizitzaren erabileraren esleipena; konpentsazio-pentsioa; eta hezkuntza- eta bizikidetza-jarraibideekin, seme-alabei arreta ematearekin eta abarrekin lotutako edozein alderdi.
- **Bikote-hausturarekin zerikusirik ez duten familia-gatazkak**, hauei lotutakoak: adin nagusiko seme-alabekin izaten diren bizikidetza-arazoak; beren senideek mendekotasun egoeran edo -arriskuan dauden helduei arreta eta zaintza ematea; belaunaldien arteko gatazkak, bizikidetza-arazoak edo bestelakoak...

Familia-bitartekaritza kanpo geratzen dira bikotearen, seme-alaben edo familia-unitateko edozein kideren aurkako indarkeria edo tratatu txarrak dauden kasuak, edo legez kontrakoak izan daitezkeen beste edozein jardura penal. Zerbitzuaren helburuak hauek dira:

- Familiako gatazkei aurre egiten eta komunikazioa errazten laguntzea
- Akordio adostuak bultzatzea
- Kostu emozionalak minimizatzea
- Familiako harremanen judizializazioa saihestea.

Arlo sozial, psikologiko eta juridikoan diziplinarteko bitartekari familiarrek osatzen dute taldea.

## Nork jaso dezake zerbitzu hori?

**Familia edo bizikidetzak gatazkaren** bat duten pertsonak.

## Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- Inplikaturako pertsonen artean familia- edo bikote-lotura egotea.
- Inplikaturako pertsonetako bat gutxienez erroldatuta egotea.

## Zenbat balio du zerbitzuak?

**Doako zerbitzua.**

## Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Zerbitzua ematea **Udalen ardura** da.

## Non eska dezaket zerbitzua?

### Araba

Santa Olaja de Acero, 1 (sarrera: Blas de Otero). 01010 Vitoria-Gasteiz **Telefonoa eta ePosta:**  
945 171 125  
[smfaraba@euskadi.eus](mailto:smfaraba@euskadi.eus)

### Gipuzkoa

- Larramendi, 1 (sarrera: Prim, 24) 20006 Donostia-San Sebastián
- Gorosabel Zaharra lokala, Rondilla kalea 34B (Tolosa)

**Telefonoa eta ePosta:**

943 576 208  
[smfgipuzkoa@euskadi.eus](mailto:smfgipuzkoa@euskadi.eus)

## Bizkaia

Santutxu, 69. 48006 Bilbo **Telefonoa eta ePosta:**  
944 277 788  
[smfbizkaia@euskadi.eus](mailto:smfbizkaia@euskadi.eus)

## Informazio gehiago

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan** ere informazioa eska dezakezu. Esaiguzu zure udalerria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

## Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

[Fitxa laburrera itzuli](#)